

## GJH (Garapen Jasangarrirako Helburuak) Enpresako Estrategian ezartzea

ELKARLANEKO PROIEKTUA:



GJHetako Ekintzaren Hamarkadan gaude. Hurrengo urteetan, gobernuek GJHak lortzen ahalegintzea izango dute helburu nagusi, baina horrek ez du adierazi nahi lana euren gain bakarrik dagoenik. Sektore pribatuak, erakundeek, gizarte zibilak eta, jakina, ETE-ek GJHen lorpena azkartzen lagundu dezakete. Nolanahi ere, batzuetan ez da hain erraza jakitea nondik hasi, 17 helburu daudelako eta bakoitzak xede zein adierazle desberdinak dituelako.

Enpresak era askotako ordainak jasoko lituzke, honako arlo hauetan ustezko aurrerapena lortzean: eraginkortasuna, kostuen murrizketa, talentua erakartzeko eta bertan geratzeko prozesua eta bezeroen interesa nahiz fidelizazioa, besteak beste. Ondo kudeatutako enpresak jasangarritasun ekonomikoa eduki behar du, baina soziala eta ingurumenekoa ere bai.

COVID-19agatik sortutako gaur egungo egoeraren ondorioz, harremanetarako eta lanerako modu berriak ezagutu behar izan ditugu. Hori dela eta, tailer honetako materialak egokitu ditugu online formatura, ETE-ei GJHen testuingurua nahi duten erakundeetara eramaten laguntzen jarraitzeko. Horretarako, estrategian oinarritutako aldaketa eraldatzaileak ezarri eta enpresa bakoitza aztertu beharra dago, ezarpen praktikorako neurriak zehazteko. Beraz, tailer honek honako emaitza hauek lortzea du helburu:

- Gaur egun GJHetan egindako ekarpenari **balioa ematea**, seguruenik ezaguna ez delako.
- GJHen inguruko gaur egungo inplikazioa eta haien eragina **hobetzea**.
- Enpresa parte-hartzaileei GJHak lehenesten **laguntzea**, lantzeko eta haiei buruzko informazioa emateko, horrekin lotutako negozio-helburuak zehaztea eta haien aurrerapena neurtzea eta jakinaraztea.
- Enpresa parte-hartzaile guztiei beharrezko metodologiak eta tresnak **ematea**, azterketa eta hedapen estrategikoen arabera GJHak euren ohiko jardunean ezarri ditzaten.
- GJHak enpresetako eragiketetan eta estrategian ezartzeko orduan jarduera onak garatzen eta trukatzeko **laguntzea**.
- Gizarte-erantzukizunerako ekintza berriak zehaztea, gainerako enpresa parte-hartzaileekin egindako talde-laneko inspirazioaren ondorioz, horretarako sail berezia eduki gabe.

ELKARLANEKO PROIEKTUA:

- Enpresa parte-hartzaile bakoitzeko estrategian GJHen ezarpenaren garapena **lortzea** eta, horrela, jasangarritasunaren arloko jarduera onetako erreferentea eta adibidea izatea.

## **METODOLOGIA ETA PARTAIDETZA:**

Aurreko helburuen arabera, tailer honek honako haxe du xede, prestakuntza-jardueratik haratago: ezarpenerako benetako proiektuak garatzen laguntzea, jarraibideak zehazteko eta, ostean, enpresa parte-hartzaileetan garatzeko.

## **PROGRAMA:**

### **1. talde-saioa: AURKEZPENA ETA DIAGNOSTIKOA**

- Parte-hartzaileei proiektua eta hartu beharreko konpromisoak aurkeztea.
- Garapen jasangarrirako helburuak, haien xedeak eta enpresan duten ezarpena azaltzea.
- Proposatutako erreminta aurkeztea, eraginak aztertzeke eta GJHen aurrean enpresa bakoitzaren hasierako posizioaren diagnostikoa egiteko.

Lehenengo talde-saioa amaitutakoan, bigarren saioa baino lehen egin beharreko zereginak proposatuko zaizkie parte-hartzaileei, eta, funtsean, GJHen erronken aurrean enpresaren hasierako diagnostikoa egitea edo eguneratzea izango da helburua.

#### **Saioan aurreikusitako emaitzak:**

- Garapen jasangarrirako helburuen xehetasunak eta enpresan duten inplikazioa
- Diagnostikorako eskaintako eta parte-hartzaileen esku jarritako tresna

### **Banakako 1. saioa: ENPRESA BAKOITZARI EZARTZEN LAGUNTZEA**

Enpresa bakoitzean egindako banakako lehenengo lan-saio honetan, aholkularitza-taldeak bertako arduradunak gidatuko ditu diagnostikoa egiteko eta eraginak aztertzeke prozesuan.

Hona hemen lehentasunezko aukera: enpresa parte-hartzaile bakoitzak agindutako zereginak modu autonomoan egitea eta, gero, bilera hau antolatzea zalantzak ebazteke eta argitzeko. Nolanahi ere, lana era desberdinean antolatu liteke parte-hartzaile bakoitzaren arabera, jardunaldi honen gehieneko aprobetxamenduaren bila.

### **2. talde-saioa: GAUR EGUNGO ERAGINARI BALIOA EMATEA ETA PLANGINTZA EGITEA**

Bigarren jardunaldian, helburu bikoitza garatuko da: prestakuntzan nahiz metodologiaren ezagutzan aurrera egitea eta enpresa parte-hartzaile bakoitzak egindako lana partekatzea.

Beraz, honako eduki hau aurreikusten da saiorako:

- Enpresa bakoitzak egindako lanak aurkeztea eta aholkularitza-taldeak “zuzentzea”.
- Taldean, ondorioak eta “ikasbideak” aztertzea.
- Behar besteko erremintak, jarraibideak eta tresnak aurkeztea, garapen jasangarrirako helburuak enpresa bakoitzeko plangintzarako eta hedapen estrategikorako prozesuan ezartzeko. Horretarako, honako hauexeki lehentasun berezia ematea:
  - > Adierazleak, irizpideak eta neurketarako jarraibideak zehaztea.
  - > Aurreikusitako helburuak ezartzea eta erakundeko estrategia zein eragiketa globaletan integratzea.
  - > Ekintzak eta proiektuak antzematea, zehaztea eta abian jartzea..

ELKARLANEKO PROIEKTUA:

Bigarren prestakuntza-jardunaldi hau amaitutakoan, parte-hartzaileei emango zaie euren erakundeetan helburuen zein ekintzen ezarpenean aurrera egiteko garatu beharreko zereginen xehetasunen berri.

#### Saioan aurreikusitako emaitzak:

- Enpresa bakoitzak egindako eta aurkeztutako diagnostikoa. Erdietsitako "ikasbideak".
- Helburuak zehazteko eta aurkeztutako estrategian ezartzeko tresnak.

## Banakako 2. saioa: ENPRESA BAKOITZARI EZARTZEN LAGUNTZEA

Enpresa bakoitzarentzako banakako bigarren laguntza-saio honetan, diagnostikoaren fasean landu gabe geratu diren ustezko alderdiak "zuzenduko" dira, eta helburuak zein adierazleak zehazten lagunduko zaie, talde-saioan azaldutako proposamen metodologikoaren arabera.

#### Saioan aurreikusitako emaitzak:

- Enpresa bakoitzean diagnostikorako eta plangintzarako gauzatutako lana..
- Enpresa bakoitzean etorkizunerako garapenari begira ezarritako jarraibideak.

## 3. talde-saioa: EKINTZA ETA KOMUNIKAZIOA

Hirugarren eta azken talde-saioan, honako hauxe jorratuko da:

- Enpresa guztiek helburuak zehazteko eta ekintzak hedatzeko egindako lanak aurkeztea. Aurkeztutako jarduera onei buruz eztabaidatzea eta aztertzea.
- Aholkuaritze-taldeak komunikaziorako jarraibideak zein tresnak aurkeztea eta enpresa bakoitzak garatutako lorpenei balioa ematea.
- Parte-hartzaileen ikasbideen eta ondorioen azken azterketa egitea.

#### Saioan aurreikusitako emaitzak:

- Ekintzarako eta komunikaziorako azaldutako tresnak eta jarraibideak.
- Ikasbideak eta zehaztutako jarduera onak..

## HARTZAILEAK:

ETE parte-hartzailearen estrategia ezagutzen dutenak eta bertan erabakiak hartzeko gaitasuna dutenak.

**Enpresako 1-3 lagunek parte hartzea gomendatzen da.**

## COSTE:

- Empresas asociadas: **250 euros por empresa** (IVA incluido)
- Empresas no asociadas: **750 euros por empresa** (IVA incluido)

## INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES:

Informazioa osatzeko prest gauzkazue:

Nieves Gamiz, ngamiz@cebek.es Tel. 94 400 28 00

Izena emateko orduan, eskabideak jasotzen direneko hurrenkera zehatza hartuko da kontuan.

ELKARLANEKO PROIEKTUA: